

BERGARAKO PSE-EE ATSEKABETUTA DAGO UDALBATZA EZ DELA GAI IZAN UKRAINAREN INBASIOAREN AURKAKO ADIERAZPEN INSTITUZIONAL BAT LORTZEKO

Alberto Alonso, Bergarako Udaleko bozeramaile sozialistak tamalgarrizat jo du udalbatzako talde politiko guztiek Ukrainaren inbasioaren aurkako Adierazpen Instituzionala onartzeko akordio bat lortzeko duten ezintasuna. Are gehiago, atsekabetuta agertu da testu bat adosteko dauden zailtasunengatik, non ordezkari politiko guztiok elkartasuna adieraziko baikenien ukrainarrei eta bakea eskatuko baikenuen.

Uka ezina da adierazpen instituzional bat dela udalbatzaren aitoren publiko eta nabarmenena. Horregatik PSE-EE joan den ostiralean, otsailaren 25ean, deklarazio instituzionalerako proposamena bidali geniola EAJri eta EHBilduri. Negoziaziorako testu irekia zen, uste genuelako interesgarria zela talde guztien artean lantzea, adostasuna bilatuz eta joan den otsailaren 28an elkarrekin egindako ohiko Osoko Bilkuran irakurri ahal izateko, sinbolismo-karga handia izan zezakeelako. Hala ere, ez da posible izan.

Gure aldetik, Bergarako PSE-EEk gaitzetsi egiten ditu Putinen gobernuak Ukrainan egindako ekintza militar onartezinak, eta elkartasuna eta babesa adierazten diegu Ukrainako herritarrei. Esan gabe doa Ukrainan gertatzen ari dena gertakari oso larriak direla, eta ezin direla zigorrik gabe geratu. Potentzia nuklear batek nazioarteko legedia urratu du, ondoko herrialde baten inbasioa hasi du, eta errepresaliekkin mehatxatu du erasotutako herrialdeari laguntzen dion beste edozein nazio. Putinek Ukrainari eraso dio. Are gehiago, Europako printzipioei eta balioei ere eraso die.

Era berean, Alonsok esan du sozialistok gure ahotsa gehitu nahi dugula mundu osoan Putini inbasioa berehala eteteko eta tropak Errusiara itzultzeko eskatzen ari zaizkion askorekin. Gainera, diplomaziara itzultzea eskatzen dugu, bakea berrezartzeko eta heriotza eta ondorio suntsitzaile gehiago saihesteko.

Azkenik, nabarmendu du Pedro Sanchezen Gobernuak bide diplomatikoa babestu eta agortu duela, alegia, indarkeriak gora saihestuko lukeen irtenbide bat lortzeko elkarrizketaren bidea. Era berean, elkartasuna adierazi die oraindik Ukrainan dauden herritar espainiarrei, bizilagunak Poloniako mugatik ateratzea errazten ari direnei, eta aintzat hartu du beharrezkoa den laguntza ematen dien Espainiako Gobernuak egindako lanari. Gainera, Europako beste estatuekin batera, gerrak Espainiako ekonomian izango duen eraginaren aurrean neurriak hartuko dituela nabarmendu du, baita energiaren arloan izango duen ondorioen aurrean ere.